

Mungiako Udalak "Udazkenean, Musikaz Blai" programa jarriko du abian bihar, azaroak 10, ostalaritza jarduera dinamizatzeko helburuarekin

- Musika taldeek herriko kaleetan zehar joko dute azaroaren 10etik abenduaren 15era bitartean, 20:00etatik aurrera.

- Udalak 21.000 euro bideratuko ditu guztira plan horretara, "Mungia Indartzen" programaren bidez.

Mungia, 2023ko azaroaren 9a. Mungiako Udalak, *Mungiako Merkataritza eta Ostalaritza Alkartearekin* elkarlanean, "Udazkenean Musikaz Blai" jarri du martxan, udalerrira dinamizatzeko eta mungiarrei eta bisitariei aisialdirako alternatibak eskaintzeko. Programa bihar, azaroak 10 ostirala, hasiko da eta abenduaren 15ra arte luzatuko da. Musika emanaldiak izango dira herriko hainbat kaleetan 20:00etatik aurrera. Udalak 21.000 euro inbertitu ditu "Mungia Indartzen" planaren bidez, saltokiei eta ostalaritza-establezimenduei laguntzeko ekimena hain zuzen.

Guztira, 6 musika taldeek joko dute udalerriko hainbat tokitan modu ibiltarian (egunero musika talde bat Mungiako zonalde batean) eta estilo desberdinekin, euskal kantu tradizionala eta fanfarreak, txarangak eta mariatxiak barne. Mungian honako talde hauek izango dira: Eingo, Josepa Kalez Kale, Kittu, Monstruos de la Universal, Sugarri, Taberna Ibiltaria eta Roberto Urrutia & Mariatxis.

Ibilbideen egutegia honakoa izango da:

Azaroak 10	Butroi, Aita Zameza Zubiaga eta Lauaxeta Olerkari kaleak
Azaroak 17	Elorduigoitia Trobika, Aita Arrupe kaleak eta Foruen plaza
Azaroak 24	Landetxo eta Intxausti Eresgile kaleak
Abenduak 1	Zona 1: Aritz Bidea eta Erribide kaleak / Zona 2: Calles Aita Elorriaga, Mastibarrena eta Arana Goiritar Sabin kaleak
Abenduak 15	Zona 1: Lauaxeta Olerkari kalea / Zona 2: Parque Torrebillela, San Kristobal, Ibaibide eta Errekatxu kaleak

Ekimen hau "Mungia Indartzen" programaren barruan kokatzen da. Programa hori COVID-19aren pandemian zehar sortu zen, Mungiako merkataritza eta ostalaritza establezimenduetan jarduera suspertzeko asmoz, eta Udalak mantendu egin du tokiko negozioei laguntzen jarraitzeko. Bakarne Egia Ekonomia Sustapen eta Enplegu zinegotziak adierazi duenez, "horrelako jarduerak oso pizgarri garrantzitsuak dira tokiko ekonomiarentzat. Azken urteotako esperientzia positiboa izan da eta, horregatik, programa hau indartu nahi dugu eta laguntza eta inbertsio ekonomikoak eutsi tokiko kontsumoa bultzatzeko. Gainera, gure kaleak hainbat ekimenekin dinamizatzeko herritarrei ekartzen dien onura gehitzen da. 2023ko ekainean Mungibonua merkaturatu genuen saltokientzat, eta orain "Udazkenean, Musikaz Blai" jarri dugu martxan, gure esku dagoen guztia ematen jarraitu nahi dugulako gure udalerraren pulstua ekonomiko eta sozialari eusteko".